

**ELKARTEAREN ESTATUTUAK
EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA, E. K. E.
HERRI ONURAKO EUROPAR KOOPERATIBA ELKARTEA**

Zamudion, 2009-04-20

I. KAPITULUA

IZENA, HELBURUA ETA EGOITZA, IRAUPENA, LURRALDE EREMUA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA

1. artikulua. Izena

“**EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA**, Herri Onurako Europar Kooperatiba Elkarte” izenarekin eratzen da, Bilbon, Erantzukizun Mugatuko Europar Kooperatiba Elkarte bat Europar Batasuneko Kontseiluak eraturako Europar Kooperatiba Elkartearen (EKE) Estatutuei, zehazki beren 8. artikuluari, dagokion 2003ko uztailaren 22ko 1.435/2003 zk.dun Araudiko (EK) Printzipioen eta Xedapenen mende eta baita aplikagarri zaizkion gainerako legezko aginduen eta Estatutu hauek diotenaren mende ere.

1.435/2003 zk.dun Araudiak (EK) erregulatzen ez dituen gauza guztietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 24ko 4/1993 Kooperatiben Legea aplikatuko da izaera subsidiarioarekin, Lege hori baita elkarte honek bere egoitza duen lurraldean indarrean dagoen kooperatiba-araudia, hots, Espainiako Estatuko Euskal Autonomia Erkidegoan dagoena.

Era berean, elkarteak, Herri Onurako Kooperatiba Elkartearen izaera hartzen du otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuan xedatutakoan oinarrituta, dekretu horrek baitu onetsia herri-onurako elkarteei dagozkien prozedura eta betebeharrei buruzko Araudia.

2. artikulua. Helburua.

Bat. Europar Kooperatiba Elkarte (EKE) honen helburuak hauek dira: bere bazkideen hezkuntza-proiektu komuna, IKASTOLA hezkuntza-proiektua garatzea, bazkide bakoitzari bere berriazko hezkuntza-proiektua garatzen laguntzea, bere bazkideak talde moduan ordezkatzeko eta hezkuntza euskalduna bere bazkideen esparrutik harago ere sustatzea.

Horretarako, EKEren giltzarri diren prozesuak hauek dira:

1. I+G: IKASTOLA eredia definitu, ikertu eta garatzea, Ikastola eredia zaintzeko eta indartzeko.
2. HEZKUNTZA: Ikastolei prestakuntza, aholkularitza, ebaluazioa, ikasmaterialak eta I+G proiektu-zerbitzuak eskaintzea.
3. EGONKORTASUNA: Ikastolen egonkortasuna kudeatzea beren normalkuntza juridiko-administratiboan, finantziarioan, lan-markoan, eskola-mapan eta beren bideragarritasunaren gainerako aldagaietan.
4. ANTOLAKUNTZA: EKE antolatu eta dinamizatzea.
5. KANPO KOMUNIKAZIOA: EKEren kanpo-harremanak planifikatu eta garatzea.
6. ENPRESA: EKE enpresa-bikaintasuneko irizpideekin antolatu eta kudeatzea.

Bi. Elkartearen helburu hau garatzean, Kooperatibak ondorengo eginkizunak beteko ditu:

1. Elkartutako erakundeetako partaide diren ikastoletako bakoitzaren hezkuntza-proiektua hobeto garatzeko orientabideak proposatzea eta jarduera-egitasmoak eta egitarauak nahiz zerbitzu-prestakuntzakoak garatzea, beti ere haien kudeaketa eraginkorra helburutzat izanik eta lurralde desberdinetako berezitasunak errespetatuz.
2. Bazkide den ikastola bakoitzaren autonomia errespetatuz, gure euskarazko hezkuntza-ereduaren giltzarri diren faktoreak betetzea bultzatzea, ondorengo arlo hauetan: balore komunetan, pedagogia-koordinatuetan, kudeaketa komunaren estrategia eta moldeetan eta gure urteroko kudeaketa-planetan adierazitako ekonomia- eta gizarte-irizpideetan.
3. Ikastolen arteko elkarlan- eta elkartasun-harremanak sustatzea, bai hezkuntza-arloan eta ekonomia-arloan eta baita kudeaketa-esperientzien elkartrukean, pertsonalarenean, ikasleen jarraipenean eta Kooperatibaren helburuarekin bat datozen ikastola berrien sorkuntzan ere.
4. Zabaldu behar den informazioa eta komunikazioa koordinatzea.
5. Euskal Herriko ikastolen ordezkari eta kudeaketa eremu bereko erakundeen, gizarte-eragileen eta gizartearen aurrean garatzea. Horretarako, ildo estrategikoak definituko ditu eta Ikastola Mugimenduaren jardura instituzionala zuzenduko du.

3. artikulua. Elkartearen egoitza.

Kooperatibaren elkarte-egoitzako kalean finkatu da baina bigarren mailako egoitzak, eskumendekoak, bulegoak eta ordezkariak ere izan ditzake, Europar Batasuneko edozein Estatu edo lurraldetan, nahiz haietatik kanpora.

Elkartek bere jatorrizko egoitza daukan Estatuaren barruan elkartearen egoitzaren aldaketa egiteko erabaki oro ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 24ko 4/1993 Kooperatiben Legeko 74. eta 75. artikuluetan agindutakoaren arabera izapidetuko da. Elkartearen egoitza Europar Batasuneko kide den beste Estatu batera aldatzeko izapidea, 1.435/2003 Araudiko (EK) 7. artikuluan ezarritakoaren arabera erregulatuta egingo da.

Kooperatiba Elkarte Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan erregistratuta dago, beren elkarte-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten kooperatibei aplikagarri zaion legeriaren arabera.

4. artikulua. Iraupena.

Kooperatibaren iraupena mugarik gabeko denboraldirako ezartzen da eta sortzeko eskritura publikoa gauzatzen denean hasiko ditu bere elkarte-eragiketak.

5. artikulua. Lurralde-eremua.

Europar Kooperatiba Elkarte honen lurralde-eremua, Europar Batasunarena da.

6. artikulua. Estatutuen aldaketa.

Elkartearen Estatutuen aldaketak, Elkartearen Batzar Nagusiak erabakiko ditu ondorengo baldintza hauek bete ondoren:

- a) Botoen %20ko bazkideen ordezkariak proposatuak izan eta txosten idatzi batekin proposamenaren xehetasunak azalduz aurkeztuta,
- b) batzar-deiak, aldatu nahi diren arloak behar den argitasunarekin azalduta,
- c) batzar-deian proposatutako aldaketen testu osoak eta beren txosten zuzitzaileak elkartearen egoitzan aztertzeko bazkide guztiek duten eskubidea eta dokumentu horiek jasotzeko edota berei doan igorriak izatea eskatzeko duten eskubidea jasota.
- d) erabakia botoen 2/3eko gehiengo kualifikatuz onartuta.

Aldaketa-erabaki hori eskritura publiko mailara jasoko da eta Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

7. artikulua. Hizkuntza ofiziala.

Kooperatiba Elkarte honen hizkuntza ofizialtzat euskara ezartzen da, nahiz eta, bere ohiko zereginetarako espainiera eta frantsesa ere hizkuntza ofizialkide moduan erabili ahal izango dituen.

II. KAPITULUA

BAZKIDEAK

1. ATALA BAZKIDEEN ONARPENA

8. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak.

Bat. EKEko bazkide-kopurua mugagabea da, baina ezein kasutan ere ez da izango bost baino gutxiagokoa eta gutxienez ere Europar Batasunean partaide direnetako bi estatutan bizi direnak edota partaide diren bi estatutako Legepean daudenak izango dira.

EKEren elkarte-helburuaren arabera elkarlan-jardunerako gaitasuna duten eta ikastolaren batean titular diren pertsona fisiko edo juridiko guztiak izan daitezke EKEko bazkide, Estatutu hauek izenpetzean beren gain hartzen dituzten eskubide eta betebeharrak guztiez jabetuta, leialtasunez eta eraginkortasunez bazkide izan jarduteko konpromisoa hartzen dutenean.

Estatutu hauen ondorioetarako, hau hartzen da "ikastolatza": nortasun juridiko propioa duen hezkuntza-erakunde euskalduna da, bere hezkuntza-proiektua kudeatzen duena, bere ikasle, ikasleen guraso eta profesionalen lankidetzaren bidez, bere ingurune hurbilarekin elkarlanean, eta ikastolen erakunde kolektiboan IKASTOLA ereduaren sustatuz, eskola eta hezkuntza euskaldunak garatzeko eta gizartearen kohesioan laguntzeko.

9. artikulua. Bazkideak onartzeko baldintzak.

Bat. Bazkide-kopurua mugagabea da eta beren Kooperatibarekiko elkarte-lotura, kasu orotan ere, mugagabea izango da.

Bi. Bazkide bat onartua izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) Kontratatzeko eta bere burua obligatzeko ahalmena izatea.
- b) Estatutu hauen helburua eta onartzeko unean indarrean dauden gainerako erabakiak ere formalki onartzea.

Hiru. Kooperatiban bazkide gisa sartu eta onartuak izateko eskaera egiten duten erakunde edo pertsona juridikoek egindako eskaerak, ondorengo adierazgarriak ere izan beharko dituzte:

- Erakundearen edo Elkartearen izena, egoitza eta helburutzat duen jardueraren.
- Europar Batasuneko partaideetatik zein Estatutakoa den edota, kasua bada, egoitza zein estatu arrotzetan duen.
- Pertsona juridikoaren izenean eskaera sinatu duen pertsonaren kargua.
- Eskaera egin duen pertsona juridikoak duen bazkideen, elkartuen edo partaideen kopurua.
- Ordaintzeko konpromisoa hartzen duen kuotaren kopurua.

Pertsona fisikoa den interesatuak, ondorengo datuak dituen eskaera aurkeztu beharko du:

- Izena, deiturak, jaioterria eta jaiotza-data, bizilekua, hiritartasuna eta nazionalitatea.
- Bazkide izateko aurreikusitako baldintzen adierazpena.
- Ordaintzeko konpromisoa hartzen duen kuotaren zenbatekoa, zenbateko hori ezein kasutan ere ez da estatutu hauetan 55.-bat artikuluan aurreikusitakoa baino txikiagoa izango.
- Elkarte honetan indarrean eta aplikagarri izango den kooperatiba-legeria, estatutu hauek eta, kasua bada, elkarteko organoek onetsi eta indarrean dauden barne-erregimeneko araudiak ezagutzen eta onartzen dituela dioen aitortpena.
- Zein bazkide motatakoa izan nahi duen.

10. artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak.

Bat. Bazkideen onarpenaz hartu beharreko erabakia hartzea Kooperatibako Artezkaritza Kontseiluari dagokio, baina horretarako Artezkaritza Kontseiluko boto guztien, bertaratuen eta ordezkatuena, aldeko erabakia behar da; ondo oinarritutako arrazoi zuzenak bakarrik muga lezake erabaki hori:

- a) onarpenerako ezarritako helburuetan izendatutako betebeharrak ez betetzeak,
- b) bazkide berrien beharrek.

Bi. Onarpena baiestea edo ezestea ez da egingo elkartearen helburuarekiko ausazko bazterkeria edo zilegitasun-gabezia duten arrazoiak erabiltzeagatik.

11. artikulua. Onartzeko prozedura.

Bat. Bazkide gisa onartzeko eskaera idatziz egingo zaio Artezkaritza Kontseiluari 8. artikuluan aurreikusitako betebeharrak beteta eta, Artezkaritza Kontseiluak, eskaera jasotako datatik zenbatutako hirurogei egun baino luzeagoa izango ez den epean emango du ebazpena.

Bi. Onarpenari buruzko erabakia idatziz jakinaraziko zaio interesatuari eta ezezkoa den kasuan arrazoiak ere adierazi egingo dira. Aipatutako epea inolako ebazpenik eman gabe igaroz gero, onarpena onartutzat emango da.

12. artikulua. Onarpenaz emandako ebazpenen aurkako helegiteak.

Bat. Ezezko ebazpenari eskatzaileak helegitea jarri ahal izango dio eta Batzar Nagusiari aurkeztu jakinarazpena jasotako egunetik zenbatutako hogeitau eguneko epean. Batzar Nagusiak, interesatuari alde aurretik entzunda, bozketa sekretu bidez eta 2/3eko gehiengo kualifikatuz ebatziko du helegitea jasotako egunetik zenbatutako 45 eguneko epean.

Bi. Onespen-erabakiari aurka egin ahal izango dio gutxienez ere bazkideen %10ak Batzar Nagusiari helegitea aurkeztuta, elkartearen egoitzako ohar-taulan eta lantokietakoetan edo EKEren web orrian edo bazkideei posta elektronikoaz igorritako jakinarazpenean erabakia argitaratutako datatik zenbatutako hogeitau eguneko epean eta, Batzar Nagusiak, helegitea jaso ondorengo 30 eguneko epean eman beharko du ebazpena.

2. ATALA. BAZKIDE IZAERAREN GALERA.

13. artikulua. Bazkide-izaeraren galera.

Bazkide-izaera, ondorengo arrazoietakoren batengatik galduko da:

- Bazkide izateari uko egin eta edo baja-eskaera aurkeztuta.
- Legezko xedapen edo betebeharrak ez betetzeagatik edota kooperatibaren interesen aurkako edo kalterako ekintzak egiteagatik hutsegite larria egin eta kanporatua izateagatik.
- Erakundea desegiteagatik.
- Hartzekodunen lehiaketagatik.
- Estatutu hauetan edota indarrean den kooperatiben legerian aurreikusita dauden gainerako kasuengatik.

14. artikulua. Borondatezko baja.

Bat. Bazkide orok, edozein unetan, bere borondatez eman dezake baja Kooperatiban alde aurretik idatziz Artezkaritza Kontseiluari berri emanda; urtebetez aurretik pertsona fisikoen kasuan eta 6 hilabetez aurretik pertsona juridikoen kasuan, arrazoi justifikaturen bat den kasuan salbu.

Bi. Borondatezko bajak justifikatuak eta justifikatu gabeak izan daitezke.

Hiru. Borondatezko baja justifikatu gabetzat hartuko dira:

- a) artikulua honetako bat atalean aurreikusitakoa ez betetzea eta espresuki hitzartutako gutxieneko epeak errespetatu gabe baja ematea, Artezkaritza Kontseiluak, kasuari dagozkion inguruabarrei so eginez aurkakoa erabaki dezakeenean salbu, baina beti ere bazkideari alde aurretik bere gain hartutako konpromisoak betetzea eta legozkiokeen kalte eta galeren ordainak exijitzearen kalterik gabe,
- b) bazkideak Kooperatibaren jardueretik lehiakorrak diren jarduerak egitea.

Lau. Borondatezko baja justifikatu trataera izango dute:

- a) –Kooperatibaren bat-egite edo bereizte kasuetan, kooperatiba motaren aldaketetan, elkarre-helburuek funtsezko aldaketa izatean edo kapitalari derrigorrezko kapital-ekarpen berriak egiteko exijentzien kasuan– halako erabakiaren aurkako botoa eman duten bazkideek edota halakoak erabaki ziren Batzar Nagusira joan ez eta erabakiarekiko beren desadostasuna azaltzen dutenek,
- b) 4/1993 Legeko 85.3 artikuluan xedatutik ondorioztatzen diren kasuek, Kooperatiba beste elkarre edo sozietate mota bat izatera eraldatzen denean, l
- c) artikulua honetako hirugarren atalean aurreikusi gabeko gainerako borondatezko baja guztiek.

15. artikulua. Derrigorrezko baja.

Bat. Bazkideen derrigorrezko baja-kasuak izango dira:

- bazkide izateko legez exijitutako baldintzen galera, eta
- elkarteko kapitalaren derrigorrezko ekarpenekin zerikusia duten betebeharrak ez betetzea, kanporatzea.

Bi. Derrigorrezko baja Artezkaritza Kontseiluak erabaki beharko du aho batez, alde aurretik interesatuari entzunda, ofizioz edota beste edozein bazkidek edo erasana den bazkideak berak eskatuta.

Artezkaritza Kontseiluaren erabakiari helegitea jar diezaioke erasandako bazkideak Batzar Nagusiaren aurrean jakinarazpena jasotako egunetik zenbatutako hogeita hamar eguneko epean eta Batzar Nagusiak ebatziko du gaia, alde aurretik interesatuari entzunda, helegitea jasotako egunetik zenbatutako 45 eguneko epean.

Hiru. Artezkaritza Kontseiluaren erabakia betearazlea edo exekutiboa izango da Batzar Nagusiak berresten duen egunetik aurrera edota helegitea jartzeko epea igarotzen den egunetik aurrera.

Erabakia betearazlea edo exekutiboa ez den bitartean, bazkideak bere boto-eskubidea izango du Batzar Nagusian.

Lau. Derrigorrezko baja justifikatuztat hartuko da ondorengo kasuetan: bazkide izateko baldintzen galera bazkideak Kooperatiban dituen betebeharrak ez betetzeko borondaterik ezaren ondorio ez denean edo bere derrigorrezko bajaren bidez, eta ondorengo atalean aurreikusten den kasuan, bidegabeko onurak izatea ondorio ez duenean.

16. artikulua. Bajaren ondorioak eta helegiteak.

Bat. Bazkide-izaeraren galerak, dela borondatezkoak edota derrigorrezkoak, Kooperatibatik bazkide legez behin betiko kanporatuta gelditzea ekarriko du.

Bi. Baja-kalifikazioa ematea Artezkaritza Kontseiluaren eskumenekoa da. Baja-kalifikazioaz edo bere bajaren ondorioez emandako ebazpenekin, bai borondatezkoekin eta baita derrigorrezkoekin ere, ados ez legokeen bazkideak kanporatze- edo bidaltze-kasuetarako 29. artikuluan ezarritako helegiteak eta bideak erabili ahal izango ditu.

3. ATALA. BAZKIDEEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

17. artikulua. Elkartearikiko eskubide eta betebeharren hasiera.

Elkartearikiko eskubideak eta betebeharrak bazkide izateko onarpen-erabakia onartzen den egun beretik jarriko dira indarrean eta eragina izango dute, erabakiari helegitea jartzen zaionean salbu, kasu horretan etenda geldituko baitira Batzar Nagusiak azken ebazpena onartu arte.

18. artikulua. Bazkideen betebeharrak.

Bat. Bazkideek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Batzar Nagusietara eta elkartearen gainerako organoek deitutako bileretara joatea.
- b) Karguak betetzeko hautatuak izatean haiek onartzea eta arretaz zerbitzatzea, desenkusa-arrazoi zuzenen bat denean salbu.
- c) Elkartearen organoek baliozkotasunarekin onartutako erabakiak betetzea.
- d) Bazkide izatetik ondorioztatzen diren ekonomia-betebeharrak beren gain hartzea.
- e) Estatutu hauetan eta eskuduntza duen organoak aldeztatik aurretik planifikatutako moduan deskribatutako elkartearen helburuak betetzeko beharrezkoak diren jardueretan parte hartzea eta haiek burutzea.
- f) Elkartearen barnean giro egokia eta errespetuzko elkarbizitza izan daitezen ahaleginak egitea.
- g) Kooperatibaren jardueretik lehiakorren diren jarduerak ez egitea eta halakoetan parte ere ez hartzea, Artezkaritza Kontseiluak espresuki baimenduak ez badira.
- h) Galeren ezarpena beren gain hartzea Batzar Nagusiak erabakitako kopuruan.
- i) Aurreikusitako baldintzetan Kapitalari egin beharreko ekarpenak egitea.
- j) Kooperatibaren jardueri eta datuei buruzko isiltasuna gordetzea, datu horien zabalkundeak elkartearen interesak kalte ditzakeenean.
- k) Kooperatibaren izen txarra nabarmenkiro zabaltzeko eran publikoki adierazpenak ez egitea.
- l) Kooperatibaren berariazko helburuak lortzeko jarritako neurri eta baldintzetan esku hartzea, Artezkaritza Kontseiluko partaideek espresuki hala ez egiteko baimenduak diren kasuetan salbu.
- m) Zerbitzu eta jardura komunen gastuak ordaintzea.
- n) Legezko arauetatik eta Estatutu hauetatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak.

Bi. Elkartearikiko betebeharrak horiek, bazkide guztientzat berdinak direnak, legezko arauen, estatutuaren eta Kooperatibako organoek baliozkotasunez erabakitako arabera bete beharko dira.

19. artikulua. Bazkideen eskubideak.

Bat. Bazkideek eskubide hauek dituzte:

- a) Batzar Nagusiaren eta parte hartzen duten gainerako organoen erabakiak onartzeko proposamenak egitea eta ahotsarekin eta botoarekin erabakitzeko parte hartzea.
- b) Kooperatibaren organoetako karguak betetzeko hautaketak egitea eta hautatua izatea.
- c) Kooperatibaren jardura guztietan inolako berezikeriarik gabe parte hartzea.
- d) Estatutu hauen arloan barne-ordenamendu juridikoaren aldaketak eragitea.
- e) Ekarpeneren interesak eta, kasua bada, kooperatiba-itzulkinak jasotzea ezartzen diren modu eta kopuruetan.
- f) Kooperatibak ezarritako zerbitzu komunen onurez baliatzea.
- g) Beste kooperatiba-antolakuntza batzuekin eta antzekoekin loturak sortzen laguntzea.
- h) Giza baliabideen politika komunaren onurak jasotzea eta bereziki pertsonalaren bazkide arteko transferentziez baliatzea, bai behin-behineko kudeaketa-arrazoiengatik eta baita pertsonal-soberakinengatik ere, Kooperatibaren barne-araudiaren arabera.
- i) Kooperatibatik edota gainerako bazkide-erakundeetatik maileguak, diru-laguntzak eta beste finantziario-laguntza batzuk jasotzea, gai horrekiko eskuduntza duten organoek xedatzen dutenaren arabera.
- j) Estatutu hauetan ezarritakoa betetzea exijitzea, horretarako beharrezkoak diren jardunen bitartez.
- k) Informazioa jasotzeko eskubidea ondorengo artikuluan ezarritakoaren arabera.
- l) Elkarteko kapitalari bazkideak egindako ekarpenen eguneratzea eta itzultzea bidezkoa denean.
- m) Legeetatik eta Estatutu hauetatik ondorioztatzen diren gainerakoak.

Bi. Elkartean bazkideek izango dituzten eskubide hauek, bazkide guztientzat berdinak izango dira eta legezko arauen, estatutueto arauen eta Kooperatibako organoek baliozkotasunez onartutako erabakien arabera gauzatuak izango dira.

20. artikulua. Informazio-eskubidea.

Bat. Bazkide orok informazio-eskubide hauek izango ditu:

- a) Kooperatiba Elkartearen Estatutuen kopia bat eskatzekoa eta, baldin balego, baita Barne Erregimeneko Araudiarena ere.
- b) Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusietako Akten Liburua aztertzea, Batzar Nagusiak onartutako akten eta erabakien kopia ziurtatu bat lortzeko eskubidea eta baita Bazkideen Erregistro Liburuan egindako idazketen ziurtagiria ere, aldezturik eskaera arrazoitua egin ondoren.
- c) Bazkidea bera zuzenean erasaten duten Artekarrizta Kontseiluaren erabakien kopia ziurtatua eskatzeko eskubidea.
- d) Artekarrizta Kontseiluak Kooperatiban bazkidea berak duen egoera ekonomikoaz informatua izateko eskubidea, eskaera egiten duenetik hasita zenbatutako hilabeteko epean.
- e) Bazkideak Artekarrizta Kontseiluari Kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen edozein atalez beharrezkoak iruditzen zaizkion argitasunak edo emaitzak eskatzeko eskubidea; Artekarrizta Kontseiluak eskatutako informazio horiek eskaera-idazkia aurkeztutako egunetik zenbatutako hamabost eguneko epean eman beharko ditu.
- f) Batzar-deiaren epeak dirauen artean, urteko kontuak eta emaitzen aplikazio-proposamena dituzten dokumentuak Elkartearen egoitzan bazkideen esku edukitzea, nahi dutenek ikusi ahal izan ditzaten.
- g) Lehen aipatutako dokumentuei dagozkien azalpenak Batzar Nagusian jaso ahal izateko gutxienez ere bost egunetz aurretik idatziz eskatzeko eskubidea.
- h) Batzar-deiak dirauen epearen barruan, kudeaketa-txostena eta, kasua bada, kontuen auditoria elkartearen egoitzan aztertzeko eskubidea.

Bi. Aurreko atalean ezarritakoaren kalterik gabe, gutxienez ere elkarteko botoen %10a ordezkatzen duen bazkide-taldeak, edozein unetan eta idatziz, egokia iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango du. Artekarrizta Kontseiluak idatziz eman beharko dio talde horri eskatutako informazioa, eskatutako egunetik zenbatuta gehienera ere hogeita hamar eguneko izango den epean.

Hiru. Edozein kasutan ere, Artekarrizta Kontseiluak, gutxienez ere hiruhilero eta egokiak iruditzen zaizkion bideetatik, Kooperatibak dituen gorabehera sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei.

21. artikulua. Informazio-eskubidearen mugak.

Bat. Artekarrizta Kontseiluak, arrazoiak azalduta, eskatutako informazio hori ukatzerik izango du informazioa emateak kooperatibari kalte larria eragin diezaiokenean edota isilpean gordetzeko legezko betebeharrarekin bateraezina denean. Salbuespen hori ez da bidezkoa izango Batzar Nagusiak aurkakoa erabakitzen duenean.

Bi. Bazkideren bati informazioaren bat ukatzen zaionean, hark Batzar Nagusiaren aktan bere eskaera eta informazioa ematea ukatzeko jarritako arrazoiak jasota gera daitezela eskatu ahal izango du.

Hiru. Edozein kasutan ere, Artekarrizta Kontseiluaren ukoari aurka egin diezaiokete eskatzaileek 4/1993 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. ATALA BAZKIDE MOTAK.

22. artikulua. Bazkide erabiltzaileak.

Kooperatibaren berriazko jardueretan eraginkorki parte hartzen duten pertsona juridikoak izango dira bazkide erabiltzaileak.

5. ATALA LAGUNTAILEAK.

23. artikulua. Laguntzaileak.

Bat. Kooperatibaren helburua zuzenean gauzatzen ez jardun arren, bai elkartaren arloan edo kooperatibarenean, bai arlo teknikoan, merkataritzakoan, finantziario-arloan edo beste ezeinetan elkartaren helburuak lortzen laguntza eskain dezaketen pertsona fisikoak nahiz juridikoak, kooperatibak edo beste erakunde batzuk, laguntzaileak izan ahalko dira.

Bi. Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibaren laguntzaile izendatu ahal izango ditu kooperatibarekin duten elkarlan-konpromiso egonkorra dela bide diruz laguntza eskaintzen duten edota, kasua bada, Kontseiluak bere helburuak lortzeko interesgarritzat jotzen dituen beste izaera bateko prestazioak eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

Artezkaritza Kontseiluak, Batzar Nagusiko partaideek hala eskatuta, bi urte edo gehiagoko denboraldirako laguntzaileak izendatuko ditu eta haiek ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoaren zenbatekoa zehaztuko du.

Laguntzaileek ahotsarekin baina botorik gabe parte hartu ahal izango dute Batzar Nagusiaren ekitaldietan.

Laguntzaile-izaera Artezkaritza Kontseiluaren erabakiz edota izendapenaren epealdia amaitu delako galduko da.

6. ATALA DIZIPLINA ARAUAK

24. artikulua. Hutsegite motak.

Bazkideek egin ditzaketen diziplina hutsegiteak elkarteko hutsegitetzat hartuko dira eta Kooperatibaren erakunde-arloan egindako ekintzekin edo egin gabe utzitakoekin zerikusia duten guztiak izango dira. Estatutu hauetan erregulatuta daude.

25. artikulua. Elkartean egindako hutsegiteak.

Bat. Elkartean egindako hutsegiteak, beren garrantzia, haraindikotasuna edo transzendentzia eta ondorio ekonomikoak eta/edo elkartekoak kontuan hartuta, hutsegite arin, larri eta oso larrietan sailkatuko dira.

Bi. Honako hauek izango dira hutsegite arinak:

- Kooperatibaren antolamendu eta garapen egokirako ezarritako arauak ez betetzea.
- Estatutu eta araudietako aginduak eta funtzionamendu-arauak desenkusa ezinezko ezjakintasunagatik ez betetzea, behin bakarrik bada ere.
- Dei egiten zaienean, arrazoi justifikaturik izan gabe elkartaren egintzetara, eta bereziki, Batzar Nagusietara ez joatea.

Hiru. Honako hauek izango dira hutsegite larriak:

- Urtebetetik beherako denboraldian hutsegite arinak errepikatzea.
- Elkarteko karguak betetzeko hautatuak izatean, Artezkaritza Kontseiluaren iritziz arrazoi justifikaturik gabe karguak ez onartzea edo kargu horiek uztea, nahiz karguak arduraz ez betetzea.
- Estatutu hauetan aurreikusitako betebeharrak ekonomikoak betetzerakoan atzerapenak izatea.

Lau. Honako hauek izango dira hutsegite oso larriak:

- Urtebetetik beherako denboraldian hutsegite larriak errepikatzea.
- Eskuduntza duten organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak nabarmenki ez betetzea.
- Beren izaera dela eta Kooperatibaren interes materialak edo gizarteko izen onaren kalterako izan daitezkeen ekintzak egitea edo egin beharrekoak ez egitea, hala nola

- lehia-eragiketak egitea, ekarpen edo prestazioetan iruzur egitea, Artezkaritza Kontseiluko kideak inolako begirunerik gabe tratatzea eta antzeko beste batzuk burutzea.
- Artezkaritza Kontseiluari dagozkion eginkizunak bereganatzea.
- Postaren edo Kooperatibaren isilpeko dokumentuen sekretua urratzea edo pertsona arrotzei bertako isilpeko datuen berri ematea.
- Kooperatibaren elkarte-oinarrien aurkako jarrera sistematikoak azaltzea edota aurkako proselitismoa egitea.
- 16. artikuluan aurreikusitako betebeharrak larriki edota modu errepikatuan ez betetzea.

26. artikulua. Zigorrek elkarrearen aurkako hutsegiteengatik.

Bat. Hutsegite aringatik:

- Idatziz egindako ohartarazpena edo gaztigua.
- Boto-eskubidea urtebeteraino irits daitekeen eperako etetea.
- Une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko derrigorrezko ekarpen-zenbatekoaren %25 arteko diruzko zigorra jartzea.

Bi. Hutsegite larriengatik:

- Idatziz egindako ohartarazpena edo gaztigua, baina Artezkaritza Kontseiluaren iritziaren arabera, publiko ere egin daitekeena.
- Boto-eskubidea 2 urteraino irits daitekeen eperako etetea.
- Elkarteko karguetarako hautatua izateko ezgaitzea hurrenez hurreneko bi hauteskunde-saioteraino.
- Une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko derrigorrezko ekarpen-zenbatekoaren %50 arteko diruzko zigorra jartzea.

Hiru. Hutsegite oso larriengatik:

- Elkarteko eskubide guztiak edo batzuek 3 urterainokoa izan daitekeen eperako etetea.
- Une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko derrigorrezko ekarpen-zenbatekoaren %100 arteko diruzko zigorra jartzea.
- Kanporatzea.

27. artikulua. Zigorrezko prozedura.

Bat. Elkartean hutsegiteak egiteagatik zigorrek jartzea Artezkaritza Kontseiluari dagokio, alde zuzenetik bidezkoa den espediente hasita. Hutsegite-espedienteetako dokumentu guztiak bikoiztuta egingo dira eta haietako bat Kooperatiban artxibatuta geldituko da.

Bi. Karguen plegua Instrukture batek edo batzuek, gehienez hiruk, hasiko du/dute eta Artezkaritza Kontseiluak izendatuak izango dira bere barneko partaideen artean. Instrukture horrek/horiek, hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa, egindako zigor-proposamena eta deskargu-epea (jakinarazpen-egunetik zenbatuta 10 egun baino txikiagoa izango ez dena) jakinaraziko dizkio/dizkiote eruduntzat jotakoari.

Deskargu-plegua, bazkideak hala nahi badu bideratuko duena, Artezkaritza Kontseiluari entregatuko dio, eta honek, alde zuzenetik elkarrearen aurka hutsegitea egin duen interesatuari berak hala onartuta entzun ondoren, aho batez hartu beharko du bere erabakia, hutsegitea kalifikatuz eta behin betiko zigorra ezarritik.

Hiru. Artezkaritza Kontseiluak hutsegite larriengatik eta oso larriengatik hartutako zigor-erabakiei helegiteak jarri ahal izango zaizkie Batzar Nagusiaren aurrean, jakinaraziak izandako egunetik zenbatutako 30 eguneko epean. Batzar Nagusiaren ebazpenak aurkaratuak edo aurka eginak izan daitezke 4/1993 Legeko 39. artikuluan aurreikusitako prozedura-izapidearen bitartez.

Lau. Hutsegite arinak hilabetera preskribituko edo iraungiko dira, larriak bi hilabetera eta oso larriak hiru hilabetera.

Preskripzio-epea Artezkaritza Kontseiluak hutsegitea egin izanaren berri jasotzen duen egunean hasten da zenbatzen eta, edozein kasutan ere, hutsegitea egin ondorengo hamabi hilabete igarotakoan.

Preskripzio-epea eten egingo da zigor-prozedura hasten denean eta, aurrera jarraituko du berriro, lau hilabeteko epean ebazpena eman eta jakinarazten ez bada.

Bost. Zigor guztiak egikaritzailleak edo exekutiboak izango dira dagokien helegitea bideratzeko epea helegiterik egin gabe agortu edota behin betiko ebazpena eman ondorengo egunetik aurrera.

28. artikulua. Kanporatzea.

Bat. Bazkidea kanporatzeko erabakia Artezkaritza Kontseiluak bakarrik har lezake, Estatutu hauetan, aurreko artikuluko bigarren atalean, ezarritakoaren ondorioz hasitako espedientearen bidez aurreikusitako elkartearen aurkako hutsegite oso larriarengatik.

Bi. Artezkaritza Kontseiluak idatziz jakinaraziko dio bazkideari bere erabakia, hura hartutako egunetik zenbatutako hamabost eguneko epean. Erabaki horren aurka interesatuak helegitea jarri ahal izango du Batzar Nagusiaren aurrean, jakinarazpena jasotako egunetik zenbatutako hogeita hamar eguneko epean.

Helegitea Batzar Nagusiak ebatziko du interesatua bertan dela eta berari entzun ondoren, Batzarra egiten den lehenengo aldian, boto sekretuen bidez.

Hiru. Kanporatzeko erabakia egikaritzaillea edo exekutiboa izango da Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten den unetik aurrera edota haren aurrean jar litekeen helegitearen epearen amaieratik aurrera, helegitea jarri ez izan arren.

Lau. Kanporatzeko erabakia, Batzar Nagusiak berretsi ondoren, aurkaratua edo aurka egina izan liteke bere jakinarazpen-egunetik zenbatutako bi hilabeteko epean, 4/1993 Legeko 39. artikulua erregulatutako prozesu-bidetik.

Bost. Laneko hutsegitearengatik egindako kanporatzea, Batzar Nagusiak aurreikusi eta onetsitako hutsegite oso larriarengatik bakarrik gauza liteke. Kasu horretan, kanporatutako bazkideak, barne-helegitearen bidea agortu ondoren, helegitea jarri ahal izango du Laneko Eskumenak dituen organoaren aurrean eta, ondorio horietarako, kanporatze-erabakiaren jakinarazpena kaleratze-gutunaren parekoa da.

7. ATALA BARNE FUNTZIONAMENDUKO ERREGIMENA

29. artikulua. Funtzionamendu-antolakuntza.

Bat. EKEk bere jarduera benetan garatzeko, funtzionamendurako antolakuntza bat eratu ahal izango du, Artezkaritza Kontseiluaren mende jardunez eta eskuduntza duten organoek definitutako estrategia-ildoak egikaritzuz, elkartearen helburuak lortzera bideratutako ekintza zehatzak egin ditzan.

Bi. Antolakuntza-sistema edo funtzionamendu-antolakuntza, Zuzendari edo Kudeatzaile nahiz Koordinatzaile Nagusi bat edo batzuk, edo beste arduradun motaren bat izendatuta era daiteke eta horrek, aldiz, egokia ikusten baldin badu, kooperatibaren elkarre-helburua betetzeko jarduera zehatzak garatuko dituen zuzendaritza-taldea izendatuko du.

Hiru.- Zuzendari, Kudeatzaile edo Koordinatzaile Nagusiaren edo Arduradunaren izendapena eta kargu-kentzea Artezkaritza Kontseiluaren eskumen eskusiboa izango da eta, aldezturik Gobernu-batzordeko kideei kontsulta egin ondoren, Lehendakariak proposatuta, gehiengo soilez hartuko du dagokion erabakia.

Lau.- Zuzendaritza-taldearen izendapena eta kargu-kentzea erabakitzea, Zuzendari Nagusiak proposatuta, Artezkaritza Kontseiluaren eskumenekoa izango da eta gehiengo soilez hartuko du dagokion erabakia.

III. KAPITULUA

ELKARTEKO ORGANOAK

30. artikulua. Elkarteko organoak.

Bat. Kooperatibaren elkarteko organoak hauek dira:

- Batzar Nagusia eta
- Artezkaritza Kontseilua.

1. ATALA BATZAR NAGUSIA

31. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak.

Bat. Batzar Nagusia bazkide guztien bilkura da, elkartearen borondatearen goren mailako adierazpen-organo legez eratua, bere eskumenekoak diren berariazko gaiez eztabaidatu eta erabakiak hartzeko.

Batzar Nagusiaren erabakiek beren onarpen-datatik aurrera dituzte ondorioak eta bazkide guztiak derrigorren dituzte haiek betetzera.

Bi. Batzar Nagusiari soilik dagokio honako erabaki hauek hartzea:

- a) Boto sekretuen bidez Artezkaritza Kontseiluko kideak eta likidatzaileak izendatzea eta kargutik-kentzea eta baita beren aurkako ardura-ekintzak burutzea ere.
- b) Hartarako arrazoiak daudenean kontu-ikuskatzaileak izendatzea eta kargutik kentzea.
- c) Elkartearen kudeaketa eta urteko txostena aztertzea eta onestea, urteko kontuak eta balantzeak onestea eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena erabakitzea.
- d) Kooperatibaren kudeaketa-plana eta urteko aurrekontua onestea.
- e) Artezkaritza Kontseiluak proposatuta, elkartasun-kutxari egin beharreko ekarpenak eta hark egin beharreko banaketak onestea, bai eta fondo horiekin egin nahi diren inbertsio berrietarako irizpideak erabakitzea ere.
- f) Derrigorrezko ekarpen berriak onestea, kapitalari egindako ekarpenengatik sortutako interesak ezartzea eta sarrera-kuotak finkatzea.
- g) Mendeko finantziario-bitartekoen, obligazioen, partaidetza-tituluen edo partaidetza berezien jaulkipenak erabakitzea.
- h) Kooperatibaren bategitea, banatzea, eraldaketa eta desegitea erabakitzea.
- i) Bigarren mailako Kooperatibak, Kooperatiba-korporazioak eta antzeko erakundeak sortzea eta baita halakoekin elkartzea edota halakoetatik bereiztea ere.
- j) Kooperatibaren egitura ekonomikoaren, antolakuntzakoaren edo funtzionamendukoaren funtsezko aldaketa dakarten erabakiak onestea. Halakotzat hartzen dira ondorengo hauek:
 - Kooperatibaren aktiboen erdiak baino gehiago besterentzea, eta
 - elkartearen helburuaren aldaketa, horrek berarekin Kooperatibaren jatorrizko jardueren desagerpena baldin badakar.
- k) Elkartearen Estatutuak eta, kasua bada, Barne Erregimeneko Araudia onestea eta aldatzea.
- l) Legeak ezartzen dituen gainerako zereginak.

Hiru. Batzar Orokorrak kooperatibarentzat interesgarri den edozein gai eztabaida dezake, baina elkarteko beste organo baten eskumenekoak ez diren gaiez soilik hartu ahal izango ditu derrigortasuna duten erabakiak.

32. artikulua. Batzar motak.

Bat. Batzar Nagusiak ohikoak edo arruntak eta apartekoak edo bereziak izan daitezke.

Bi. Ohiko Batzar Nagusiak eginkizun nagusi hauek ditu: elkartearen kudeaketa aztertzea, urteko kontuak eta balantzea onestea eta soberakinen banaketa edota galeren egoztea egitea, nahiz eta gai-zerrendan Batzar Nagusiaren eskumenekoa den beste edozein gai ere sartu ahal izan.

Hiru. Gainerako Batzar Nagusi guztiak aparteko izaeradunak izango dira.

33. artikulua. Batzar-deia edo deialdia.

Bat. Batzar Nagusirako batzar-deia edo deialdia Artezkaritza Kontseiluak egingo du.

Bi. Ohiko Batzar Nagusia elkartearen ekitaldia itxi eta ondorengo sei lehenengo hiletan deitua izango da. Epe horren barruan deitua izango ez balitz, edozein bazkidek eskatu ahal izango dio Artezkaritza Kontseiluari, idatzi bidez, betebeharrak hori betetzea. Artezkaritza Kontseiluak eskaera jasotako egunetik zenbatutako hamabost eguneko epean eskaerari erantzunik emango ez balio, bazkideak, elkarteak egoitza duen lekuko Lehen Auzialdiatarako Epaileari epaitegi bidez deialdia egitea eskatu ahal izango dio.

Hiru. Aparteko Batzar Nagusia, ondorengo hauetakoren batek eskatuta egingo da:

- a) Artezkaritza Kontseiluak berak deituta, edo
- b) gutxienez ere boto guztien ehuneko bosta ordezkatzeko duen bazkide-kopuruak eskatuta.

b) kasuan eskaera Artezkaritza Kontseiluari egingo zaio idatziz, errekerimendu moduan eta batzarrerako gai-zerrenda sartuta. Batzarrak, errekerimendua jasotako datatik zenbatuta gehienera ere hogeita hamar eguneko epean deitua izan beharko du. Epe horretan deitua izango ez balitz, aurreko atalean bezalaxe, epaitegi bidezko deialdia egitea eskatu ahal izango da.

Lau. Batzar Nagusiak, elkartearen egoitzako eta EKEk dituen lantoki edo egoitzetako bakoitzeko ohar-tauletan era nabarmenean jendaurrean jarritako iragarki bidez deitua izan behar du, baina gainera baita idatziz jaso-agiriarekin bazkide bakoitzari bidalitako jakinarazpen pertsonalaren bidez ere.

Batzar-deiak, batzarra egiteko lehenengo deialdiaren eta bigarrenaren data, ordua eta lekua adierazi behar ditu, bi deialdien artean gutxienez ere ordu erdiko tartea egon behar du eta gai-zerrenda argitasunez, doitasunez eta behar adina xehetasunez adierazi behar du.

Batzar-deiaren argitalpena, gutxienez ere Batzar Nagusia egin behar den eguna baino hogeita hamar egun lehenago egingo da eta gehienez berriz hirurogei egun lehenago.

Bost. Gutxienez ere elkarteko bazkideen botoen %5aren ordezkaritza-kopurua duten bazkideek, batzar-deia argitaratu ondorengo bost egunen barruan, Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako idatzi baten bidez, batzarrerako gai-zerrendan gai bat edo gehiago sartzea eskatu ahal izango dute. Artezkaritza Kontseiluak gai horiek derrigorrez sartu beharko ditu gai-zerrendan eta gai-zerrenda berritua argitaratu beharko du aurreko atalean aurreikusitako argitalpen-baldintza berberak jarraituz eta gutxienez ere Batzar-eguna baino lau egun lehenago, Batzarra ezein kasutan ere ez da atzeratuko-eta.

Sei. Ekitaldiaren itxierako kontuez ebatzi behar duen Batzar Nagusia egin aurreko hamar egunetan, bazkideek, balantzea, galera eta irabazien kontua eta bere eranskina, kudeaketa-txostena eta hartarako ardura duen pertsonak egindako kontuen auditoriaren ondorioak aztertu ahal izango dituzte.

34. artikulua. Funtzionamendua.

Bat. Batzar Nagusia, elkarteak egoitza duen udalerrian egingo da, Artezkaritza Kontseiluak hurbileko beste udalerriren bat izendatzen duen kasuan salbu.

Bi. Batzar Orokorra balioz eratuta geldituko da, lehen deialdian, botoen gehiengoa bertan aurrez aurre edo ordezkatuta dagoenean eta, bigarren deialdian, gutxienez ere elkarteko botoen %10 bertan aurrez aurre edo ordezkatuta dagoenean.

Hiru. Batzar Nagusira bertaratzeko eskubidea dute batzarra egiteko deialdian jarritako datan bazkide diren guztiek, bazkideak hori etenda dutenek salbu. Batzarrera joaten ez den bazkidea, idatziz hala adierazita, bere Lurralde Batzarreko edo lurralde-eremu bereko beste bazkide batek ordezkari izateko, beti ere Batzar Nagusi bakoitzerako izaera bereziarekin.

Batzarburuak hartuko du ordezkaritza-idazkien baliozkotasunari eta nahikotasunari buruzko erabakia.

Lau. Batzar Nagusiko batzarburua Artezkaritza Kontseiluko Lehendakaria izango da eta hura ezean Lehendakariordea edota hori ere ezean Batzarrak berak ekitaldian eginkizun hori betetzeko izendatzen duena.

Lehendakariari dagozkio: eztabaidak gidatzea, bere erantzukizunpean zaintza-lana egitea desbideratzeak gerta ez daitezzen edota eguneko gai-zerrendan sartu gabeko gaiak erabakitze-bidean jar ez daitezzen, Legeak espresuki baimentzen dituenak salbu, Batzarrean ordena zaintzea eta legezko betebeharrak betetzeko zaintzaile-lanak egitea.

Idazkari-lanak Artezkaritza Kontseiluko idazkari denak egingo ditu, edota hark ezean, Batzar Nagusiak izendatzen duen bazkideak.

Bost. Eguneko gai-zerrendan sartuta ez dauden gaiak buruzko erabakiak baliogabeak izango dira, Legeak espresuki baimenduenak salbu.

Alabaina, hartarako txanda iritxita, bazkide orok egin ahal izango ditu ahoz bere proposamenak edo iradokizun zehatzak, baina horiek Batzar Nagusiaren erabakia eskatuko balute, gutxienez ere bazkideen botoen %20k babestuak izan beharko dute, Batzar Nagusi berri baterako deialdiari bide eman ez gero han tratatzeko.

Sei. Bozketak derrigorrez sekretuak izango dira Legeak eta Estatutu hauek hala aurreikusitako kasuetan eta baita gutxienez ere bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen ehuneko hamarrak hala eskatzen duenean. Gainerako kasuetan, batzarburuak erabakiko du bozketa nolakoa izan behar duen.

Zazpi. Artezkaritza Kontseiluko kideek Batzar Nagusietara joan beharra izango dute eta bazkide ez diren zuzendari eta teknikariek hitz egiteko eskubidea izango dute baina botorik ez.

Batzar Nagusiak beste edozein pertsona bertan izatea ere baimen lezake.

Zortzi. Batzar Nagusian hala eskatzen duen edozein bazkidek eskubidea izango du Artezkaritza Kontseiluak eguneko gai-zerrendan sartutako gaiekin zerikusia duten jardueraz informazioa eman diezaiola. Ahal den neurrian, eskatutako informazioa Batzar Nagusian bertan emango da.

Bazkide bati informazioa ukatzen zaionean, bazkideak Batzar Nagusiaren aktan bere eskaera eta ukatzeko eman den arrazoia jasota gera daitezela eskatu ahal izango du.

35. artikulua. Batzar Nagusiaren akta.

Bat. Idazkariak batzar-ekitaldiaren akta idatzi eta akta-liburura pasatuko du eta gutxienez ere 4/1993 Legeko 37. artikuluan adierazitako zehaztasunak islatu beharko ditu.

Bi. Akta, hamabost eguneko epearen barruan Batzarburuak eta hartarako Batzar Nagusiak izendatutako bi bazkidek onetsia izan behar du eta horiek denek Idazkariarekin batera sinatu behar dute onetsitako akta hori.

Hiru. Batzar Nagusian izandako bazkide orok eskubidea du aktaren testu osoaren ziurtagiria eskatzeko eta, ziurtagiri hori, luzatzen den datan Idazkari denak egingo du Lehendakariak ontzat emanda.

Lau. Inskribatu behar diren erabakiak Kooperatibaren Erregistroan aurkeztuko dira, akta onetsi ondorengo hogeita hamar eguneko epean.

36. artikulua. Boto-eskubidea.

Bat. Boto-eskubidea EKren 1453/2003 zk.dun Araudiko 59. artikuluan aurreikusitakoaren arabera erregulatuko da.

Bi. Boto-eskubidearen banaketa ondorengo irizpideen arabera egingo da:

Bazkide erabiltzaile bakoitzak Kooperatiba-jardueran duen partaidetzaren proportziozko boto-eskubidea izango du eta horren banaketa ondorengo eran egingo da:

- 0 eta 500 ikasle artean dituen bazkide eta pertsona juridikoak: boto 1.
- 500 eta 1.000 ikasle artean dituen bazkide eta pertsona juridikoak: 2 boto.
- 1.000 eta 1.500 ikasle artean dituen bazkide eta pertsona juridikoak: 3 boto.
- 1.500 ikasle baino gehiago dituen bazkide eta pertsona juridikoak: 4 boto.

Bi. Edozein kasutan ere, bazkide erabiltzaileen multzoak, Kooperatiben boto guztien erdiak baino gehiago izango ditu beti.

Hiru. Bazkideek, interes-gatazka dagoen ondorengo kasuetan ez dute beren boto-eskubidea erabiltzerik izango:

- a) hartu behar den erabakiak bera zuzenean eta eskusiboki erasaten duenean, adierazitako gehiengoaren partaide denean salbu, eta
- b) Kooperatibaren jardunean erantzukizuneko ekintza bateko subjektu denean.

Lau. Batzar Nagusian bazkide erabiltzaile bakoitzak izango duen boto-kopurua urtero ezarriko da, ikasturte bakoitzean irailaren 30ean duen ikasle-kopuruaren arabera.

37. artikulua. Gehiengoak.

Bat. Batzar Nagusiaren erabakiak, emandako baliozko botoen erdiak baino gehiago aldekoak izanda onartuko dira eta horretarako ez dira hala zenbatuko zurian emandako botoak eta abstentzioak, beti ere, 4/1993 Legeak edo Estatutu hauek gehiengo sendoagoak eskatzen dituzten kasuetan salbu.

Bi. Kooperatibaren eraldaketa, beste batzuekin bategitea, bereiztea eta desegitea erabakitzeko, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi hereneko aldeko gehiengoa beharko da, beti ere Batzar Nagusian azkeneko horiek, ordezkaturak, duten kopurua Kooperatibaren boto guztien %75 baino txikiagoa denean.

Hiru. Ondorengo erabakiak onesteko, Batzar Nagusian bertaratuta edo ordezkaturak dauden botoen gehiengo soilak beharko dira:

- Kooperatiba Elkartearen kudeaketa, urteko txostena edo memoria eta urteko kontuak.
- Kudeaketa-plana eta urteko aurrekontua.

Lau. Ondorengo erabakien onspenak, Batzar Nagusian bertaratuta edo ordezkaturak dauden botoen 2/3en gehiengo kualifikatua beharko du:

- Elkartasun-kutxari egiteko ekarpenak eta kutxa horretako fondoaren banaketak nahiz fondo horiekin egin nahi diren inbertsio berrietarako irizpideak ezartzeko erabakiek.
- Kooperatibaren ekonomia-, antolakuntza- edo funtzionamendu-egituran egin nahi diren funtsezko aldaketek.
- Barne Erregimeneko Araudiak.

Bost. 44.-sei artikuluan aurreikusten dena, hots, Artezkaritza Kontseiluko kideak kargutik kentzeko erabakia hartzeko, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenen aldeko botoak beharko dira.

38. artikulua. Erabakien aurkaratzea edo aurka egitea.

Bat. Legearen aurkakoak diren, Estatutuen aurka doazen edo Kooperatibaren interesak bazkideren baten edo batzuen nahiz hirugarren batzuen onerako kaltetzen dituzten Batzar Nagusiaren erabakiak, aurkaratuak edo inpugnatuak izan daitezke.

Legearen aurkako erabakiak baliorik gabekoak izango dira eta aipatutako gainerakoak deuseztagarriak izango dira.

Ez da bidezkoa izango ondorioz gabe utzi den edo beste batek baliozkotasunez ordezkatu duen erabaki bat aurkaratzea edo inpugnatzea.

Bi. Honako hauek zilegi dute baliorik gabeko erabakiak aurkaratzeko edo inpugnatzeko ekintzak egitea:

- a) bazkide guztiek, eta
- b) Artezkaritza Kontseiluko kideek.

Aurkeratze- edo inpugnatze-ekintza urtebeteko epean iraungiko da, ordena publikoaren aurkako erabakiak direnean salbu.

Hiru. Baliogabe daitezkeen erabakiak aurkaratzeko edo inpugnatzeko ekintzak egiteko zilegitasuna dute:

- a) erabaki horren aurka beren jarrera Batzar Nagusiaren aktan jasota jarrarazitako bazkideek,
- b) bertaratu gabeko bazkideek eta botoa zilegitasunik gabe kendu zaienak, eta
- c) Artezkaritza Kontseiluko kideek.

Aurkeratzeko edo inpugnatzeko ekintza 40 eguneko epean iraungiko da.

Lau. Artikulu honetan aurreikusitako iraungitze-epeak, erabakia hartu zen datatik zenbatuko dira, edo, erabakia inskribagarria baldin bada, Kooperatiben Erregistroan inskribatutako datatik.

Bost. Aurkeratze- edo inpugnatze-ekintzak 4/1993 Legeko 39-7. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

Sei. Aurkeratze- edo inpugnatze-ekintza estimatu edo onartuz gero, ondoren emandako epaiak bazkide guztientzako ondorioak sortuko ditu.

39. artikulua. Lurralde Batzarrak.

Bat. Kooperatibaren barruan eta 1453/2003 zk.dun EKren Araudiko 63. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lurralde Batzarrak eratu ahal izango dira Kooperatibako bazkideek jatorria duten lurralde edo estatu bakoitzean.

Bi. Lurralde Batzar bakoitza, lurralde jakin bateko bazkideek osatuko dute eta Batzar bat bakarra eratu ahal izango da Espainiako Estatuko lurralde historiko bakoitzaren barnean, hau da, Lurralde Batzar bat Araban, beste bat Bizkaian, beste bat Gipuzkoan eta beste bat Nafarroan eta era berean beste Lurralde Batzar bat eratu ahal izango dute Frantziako Estatuan edo besteren batean beren elkarte-egoitza duten kooperatibako bazkideek.

Hiru. Aurrez adierazitakoaren kalterik gabe, aurreko atalean aurreikusi gabeko beste lurralde batzuetako kooperatibak bazkide egingo balira, Lurralde Batzar berri bat eratu ahal izango lukete.

40. artikulua. Helburuak.

Lurralde Batzarren helburuak hauek dira:

- Lurralde bakoitzeko bazkide erabiltzaileen interesak azaltzeko bideak eratzea.
- Lurralde jakin bateko bazkide erabiltzaileek parte hartzeko dinamika bultzatzea, bai berei dagozkien gaietarako eta baita Kooperatibaren gai orokorren arloan ere.
- Kooperatibaren politika orokorra diseinatzen eta garatzen laguntzea.
- Lurralde bakoitzeko bazkide erabiltzaileek EKEn Artezkaritza Kontseiluan izan behar duten ordezkari antolatzea eta beren kideen artean gobernu-organoren hartarako ordezkariak izendatzea.
- Lurralde bakoitzeko bazkide erabiltzaileek EKEn Batzar Nagusian izan behar duten ordezkari antolatzea, bertara joan behar duten ordezkariak izendatzea eta ordezkari horiek Batzar Nagusiko gai-zerrendako puntuetan eman behar dituzten botoen noranzkoa erabakitzea.

41. artikulua. Eraketa.

Lurralde Batzar baten eraketa-erabakia, EKEren Artezkaritza Kontseiluak onartua izango da, aldez aurretik gutxienez ere lurralde hartako bazkide erabiltzaileen %15ak arrazoituta eskatuta. Artezkaritza Kontseiluak bere eraketa sustatuko du eskaera jaso ondoren egiten duen lehenengo bileran.

42. artikulua. Eraketa-ekitaldia.

Bat.- Lurralde Batzarra aurreko artikuluan finkatutako moduan eratzea erabaki ondoren, lurralde hartako bazkide erabiltzaileak deituak izango dira Eraketako Osoko Bilkura egiteko.

Lehenengo deialdi hori Kooperatibako Lehendakariak sinatuko du eta gutxienez ere eraketako Osoko Bilkura egingo den eguna baino 30 egunez aurretik egingo da eta gehienez, berriz, 60 egunez aurretik.

Bi.- Eraketako Osoko Bilkura baliozkotasunez egiteko, gutxienez ere lurralde horretako bazkide erabiltzaileen %40 bertaratuta edo ordezkatuta egon behar du bilkura horretan.

Hiru.- Eraketa-ekitaldira EKEren Lehendakaria edo EKEren Artezkaritza Kontseiluan horretarako izendatua izan den kide bat joango da eta bera izango da mahaiburu, Lurralde Batzarra sortzea proposatu duten bazkide erabiltzaileen ordezkari batekin batera.

Erabakiak, bertaratutako eta ordezkatutako botoen gehiengo soilez hartuko dira.

Lurralde-batzarreko bazkide bakoitzak, eraketako Osoko Bilkuran, lurralde horretako bazkideek aldez aurretik erabakia duten boto-kopurua izango du. Boto-banaketarako irizpide hori hala mantenduko da Lurralde-batzarrak berak geroago onartutako erabaki baten bidez aldatua izan arte.

Lau.- Eraketako Osoko Bilkuran tratatutako gaien akta jasoko du bildutako artean hautatutako Idazkari batek eta, irakurri eta onartua izan ondoren, Mahaiburuak, Idazkariak eta bilduen artean aukeratutako bi pertsonak sinatuko dute eraketako ekitaldia egin ondorengo 15 egunen barruan.

Eraketa-aktak gutxienez ere honako eduki hauek izango ditu:

- Lurralde-batzarra osatzen duten bazkide erabiltzaileen lurraldearen aipamena.
- Bildutako zerranda.
- Bazkide bakoitzak Lurralde-batzarrean izango duen boto-balioa jakiteko egingo den boto-banaketaren irizpidea zein izango den.
- Bozketen emaitzak eta onartutako erabakien testuak eta, zehazki, Lurralde-batzarraren Eraketa berresten duenarenak.
- Aurrekontua, EKEren Artezkaritza Kontseiluak onesteko.

2. ATALA ARTEZKARITZA KONTSEILUA

43. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak.

Artezkaritza Kontseilua organo kolegiatua da eta berari bakarrik dagozkio Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza, eta gainera, Legeetan edo Estatutu hauetan espresuki elkartearen beste organo batzuek egitekoak ez diren eginkizun guztiak egitea dagokio.

44. artikulua. Osaketa, hautaketa, kargu-uztea eta hutsik dauden karguak.

Bat. Artezkaritza Kontseiluak 15 kide izango ditu eta horietako hiruk Lehendakari, Lehendakariorde eta Idazkari karguak beteko dituzte.

Bi. Artezkaritza Kontseiluko kideak Batzar Nagusiak hautatuko ditu Lurralde Batzar edo lurralde-eremu bakoitzak proposatutako bazkideen artean. Lurralde Batzar edo lurralde-eremu bakoitzak hiru ordezkari proposatuko ditu.

Era berean, EKEko langileek, bere eskumendeko erakundeetakoek eta establezimenduetakoek, ahotsa izango duen baina botorik izango ez duen ordezkari bat izendatuko dute, beraz, kasu horretan, Artezkaritza Kontseilua 16 kidez osatua izango da.

Hiru. Lehendakari, Lehendakariorde eta Idazkari kargudunak Artezkaritza Kontseiluak berak izendatuko ditu egiten duen lehenengo bileran bere kideen artean.

Artezkaritza Kontseiluko kideen agintaldia bost urtekoa izango da eta beren aldaketa partziala izango da, bi urtez behin erdiak aldatuz; behin baino gehiagotan berraukeratuak ere izan daitezke. Artezkaritza Kontseiluko kideen kopurua bakoitia denean, lehenengo aldaketan edo berrikuntzan gorantz borobilduta aterako da kargua utzi behar dutenen kopurua eta hurrengoan gainerakoak aldatuko dira; gerora horrela jarraituko da hurrenez hurren.

Beren agintaldia amaitzean, kontseilariak beren karguetan jarraituko dute Batzar Nagusiak hautatutako kide berriak beren karguak onartu arte.

Lau. Ezin dira Artezkaritza Kontseiluko kide izan:

- a) Kooperatibaren jarduerarekiko lehiakorrek diren jardueretan beren kontura ari direnak edota haren interesen aurkakoak dituztenak.
- b) Lan-utzialdian (eszedentzian) dauden bazkideak hark dirauen artean.
- c) Konkurtsatu birgaitu gabeak, adin txikikoak eta ezgaituak, Legeak edo lege-xedapenak larriki ez betetzeagatik zigortuak edo herri-karguetan jarduteko ezgaituak direnak eta beren kargua dela bide irabazi asmodun jarduera ekonomikoetan jarduterik ez dutenak.
- d) Zuzendari Kudeatzailea.
- e) Iraupen jakina, mugatua, duten bazkideak.

Bost. Artezkaritza Kontseiluan sortzen diren hutsuneak berehala beteko dira izendatutako ordezkoez karguak hartuta.

Lehendakari eta Lehendakariorde karguak, biak batera, hutsik geldituko balira, Lehendakari-karguaren eginkizunak berehala hartuko ditu bere gain adinik handiena duen kontseilariak. Bide bera jarraituko dute gelditzen diren kontseilariak, organo hori baliozkotasunez eratzeko behar diren kideak baino gutxiago geldituko balira eta, kasu horretan, Batzar Nagusia egiteko deia egin beharko dute organoa osatzeko hutsik dauden karguak adina kide hautatzeko.

Sei. Batzar Nagusiak edozein unetan erabaki ahal izango du Artezkaritza Kontseiluko kide batzuk edo guztiak kargu-gabetzea, baita batzar-deiko gai-zerrendan jasota ez egonda ere. Kasu horretan, batzar-ekitaldi berean, kontseilari berriak hautatuko dira, ordezkoez izendatuta daudenean salbu.

Zazpi. Artezkaritza Kontseiluko kideen izendapena, berek karguak onartzen dituzten une berean sartuko da indarrean eta Kooperatiben Erregistroan inskribatzeko aurkeztuak izango dira onarpenaren datatik zenbatutako 30 eguneko epean.

Edozein arrazoiengatik gertatutako kontseilarien kargu-uzteak, Kooperatiben Erregistroan inskripzioa egindako datatik izango du eragina hirugarrenen aurrean.

45. artikulua. Funtzionamendua.

Bat. Artekarrizta Kontseilua hilean behin bilduko da gutxienez ere, baina baita Lehendakariak bere ekimenez edo gutxienez ere kontseilari-kideen bosten batek hala eskatuta bilera-deia egiten duenean ere, eta bere bileretan bere eskumenekoak diren gai guztiak tratatu eta erabakiko ditu.

Bi. Artekarrizta Kontseiluaren bileretarako deiak Lehendakariak egingo ditu idatziz eta Kontseiluko kide bakoitzari zuzenduak eta, gutxienez ere, bilera egin baino zazpi egun lehenago egin beharko ditu. Bilera-deian bertan gai-zerrenda bidali behar da xehetasunez adierazita.

Hiru. Artekarrizta Kontseilua balioz eraturik geldituko da bilera bera osatzen duten kideen erdiak baino gehiago biltzen direnean eta gutxienez ere lurralde-eremu bakoitzeko ordezkari bat bertan denean. Asistentzia pertsonala izango da eta bilera etorri ezean, bertaratu ez diren kontseilariak, parte hartu ahal izango dute erabakietan, beren Lurralde Batzar edo lurralde-eremuko beste kontseilari-kide bati ordezkarrizta-ahalmena izaera bereziarekin eta Kontseiluaren bilera bakoitzeko idatziz emanda. Erabakiak, bertaratutako eta ordezkarriztatutako kideen botoen erdiak baino gehiagorekin onartuak izango dira. Kontseilari bakoitzak boto bat izango du eta, izaera bereziarekin, Kontseiluaren bilera bakoitzeko bere lurralde-eremu bereko beste kide bati ordezkarrizta eman ahal izango dio. Berdinketak Lehendakariaren botoak hautuko ditu.

Lau. Artekarrizta Kontseiluak bilera bildutako kide guztien aldeko botoa beharko du ondorengo erabakiak hartzeko:

- a) Erakunde, organismo eta gizarte-ekimenetatik bidalitako aldarrikapen publikoen edo kanpainen aldeko atxikienak onartzeko.
- b) Kooperatibarekin etengabeko harreman baliotsua izatea dakarten beste erakunde batzuekin, kooperatibak izan ala ez, loturak eta baita elkarteak ere egiteko edo desegiteko erabakiak hartzeko.
- c) Matrikulazio-kanpainetako estrategia-ildoak finkatzeko.
- d) Batzar Nagusian Elkartasun-kutxari egin beharreko ekarpenen eta fondoan banaketan proposamenak egiteko eta fondo horiekin egin nahi diren inbertsio berrietarako irizpideak aurkezteko.
- e) Batzar Nagusian aurkezteko Barne Araudia proposatzeko.
- f) EKEren elkarte-helburua eta bere bazkideak zuzenean edo zeharka erasaten dituzten lege, dekretu eta irismeneko ekimen politikoez Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak duen jarrera agertzeko.
- g) Hezkuntza-zerbitzu edo proiektu berriak abian jartzeko edo lehendik abiatutakoak aldatzeko nahiz kentzeko.
- h) Batzar Nagusian proposatu behar diren EKEren hezkuntza-eredu komunaren estrategia-ildoak eta bazkideentzako taldeko zerbitzuen antolakuntza eta kudeaketakoak zehazteko.

Bost. Lurralde Batzar edo lurralde-eremu jakin bateko bazkideak modu berezian eta zuzenean erasaten dituzten gaietan, Lurralde Batzar edo lurralde-eremu hartako bazkideek bakarrik eman ahal izango dute beren botoa gai hori tratatuko den Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko Artekarrizta Kontseiluaren bilera. Gai horrek erasaten ez dituen Lurralde Batzar edo lurralde-eremuetako gainerako Kontseilariak edo ordezkariak abstenitu egin beharko dute.

Sei. Lehendakariak eta Idazkariak sinatutako bileraren aktak, laburki jasoko ditu izandako eztabaidak, hartutako erabakiak eta bozketetan ateratako emaitzak.

46. artikulua. Kontseilarien erantzukizunak.

Bat. Artekarrizta Kontseiluko kideek ez dute ordainsari berezirik jasoko beren karguen eginkizunengatik, dedikazio partzial edo eskusiboa dutenean salbu, beti ere, jardun horretan sartutako lanorduen ordainketaren kalterik gabe; galdutako lanorduen ordainketa hori beren ordainsari profesionalaren araberakoa izango da. Edozein kasutan ere, beren eginkizunek sorrarazten dizkieten gastuak ordaindu egingo zaizkie.

Bi. Artezkaritza Kontseiluko kideek enpresari ordenatu eta ordezkari leial baten arretarekin jardungo dute beren karguetan eta Legearen edo Estatutu hauen aurka nahiz behar den ardurarik gabe egindako ekintzen kalteengatik erantzun egin beharko dute.

Horren erantzule izango dira solidarioki ekintza egindako edo erabaki kaltegarria onartutako organoko kide guztiak eta baita, hartan esku hartu ez arren, gaiaren berri izandakoan besteen erabakiaren aurka egin ez dutenak ere.

Erantzukizunik ez du indargabetuko ekintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak.

47. artikulua. Erantzukizun-ekintza.

Bat. Artezkaritza Kontseiluko kideen aurkako elkartearen erantzukizun-ekintza Kooperatibak berak gauzatu ahal izango du Batzar Nagusiaren erabaki bidez, gehiengo soilez onartuta, batzar-deiko gai-zerrendan ez agertu arren. Batzar Nagusiak, edozein unetan, ekintza burutzea onar dezake edota ekintzari uko egitea erabaki. Erantzukizun-ekintza eragiteko erabakiak, erasandako Artezkaritza Kontseiluko kideen kargugabetze automatikoa ekarriko du.

Bi. Kooperatibak dagokion erabakia hartutako datatik zenbatutako hiru hilabeteko epean erantzukizun-ekintzarik abian jartzen ez duenean, edozein bazkidek egin ahal izango du ekintza hori.

Hiru. Ekintza-eskubide hori, erantzukizuna sortu zuten gertaerak gertatutako datatik edota jakitera emandako datatik zenbatutako bi urteko epean iraungiko da.

Lau. Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, salbu gelditzen dira administratzaileek beren interesak zuzenean kalte ditzaketen ekintzengatik bazkideei legezkiekeen gizabanakoen ekintzak.

48. artikulua. Erabakiak aurkaratzea edo inpugnatzea.

Bat. Legearen edo Estatutu hauen aurkakoak diren edo bazkideren baten edo batzuen nahiz hirugarrenen onetan Kooperatibaren interesak kaltetzen dituzten Artezkaritza Kontseiluaren erabakiak aurkaratuak edo inpugnatuak izan daitezke.

Legearen aurkako erabakiak baliogabeak izango dira eta aipatutako gainerakoak baliogabe utz daitezkeenak.

Ez da egingarria izango indarrrik gabe gelditu den edo beste batez ordezkaturia izan den erabaki bat aurkaratzea edo inpugnatzea.

Bi. Baliogabeak diren erabakien aurkaratze-ekintzetan jarduteko zilegitasuna dute:

- a) Edozein bazkidek, jakiten denetik 60 eguneko epean, erabakia hartu denetik urtebeteko epea igaro ez bada, eta
- b) Artezkaritza Kontseiluko kideek, erabakia hartu ondorengo 60 eguneko epean.

Hiru. Baliogabe utz daitezkeen aurkaratze-ekintzetan jarduteko zilegitasuna dute:

- a) elkartearen botoen %10 ordezkatzeko duten bazkideek, Bi a) atalean aurreikusitako epean, eta
- b) Artezkaritza Kontseiluko kideek, Bi b) atalean aurreikusitako epean.

Lau. Aurkaratzeak aurreikusitako ondorioak eragingo ditu eta 38.-bost artikuluan Batzar Nagusiaren erabakiak aurkaratzeko edo inpugnatzeko ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

49. artikulua. Artezkaritza Kontseiluko Lehendakaria.

Artezkaritza Kontseiluko Lehendakariak ondoko eskumenak izango ditu:

1. Kooperatiba ordezkatzeko.
2. EKEren misioa gauzatzeko, estrategia-ildoak eta erakundearen ordezkari misio horren zerbitzura jarri eta kudeaketan behar bezala betetzen dela ziurtatzeko.
3. Batzar Nagusietarako deialdiak egin eta haietan mahaiburu-eginkizunetan jardutea.
4. Artezkaritza Kontseiluaren bileretarako deialdiak egin eta haietan mahaiburu-eginkizunetan jardutea.
5. Artezkaritza Kontseiluaren jarduerak eta funtzionamendua sustatu eta koordinatzea.

6. Batzar Nagusiak sortzea erabakitako batzordeen lanak sustatu eta koordinatzea.
Artezkaritza Kontseiluak edo Batzar Nagusiak esleitutako beste edozein eginkizun.

50. artikulua. Zuzendaritza. Izendapena eta kargu-uztea.

Bat.- Artezkaritza Kontseiluak pertsona bakarrekoa edo kolegiatua izan daitekeen Zuzendaritza izendatuko du, bere eskuduntza hark ematen dizkion ahalmen eta botereen araberakoa izango da eta haren zuzeneko eta etengabeko kontrolpean jardungo du beti.

Bi. Artezkaritza Kontseiluko kide izatea eta Zuzendari izatea elkarrekin bateraezinak izango dira.

Hiru. Artezkaritza Kontseiluari dagokio Zuzendariaren ebaluazioa eta ordainketa egitea. Artezkaritza Kontseiluak Zuzendaria itundutako epea amaitu baino lehen kargutik kentzea erabakitzen duenean, egingo den lehendabiziko Batzar Nagusian horren berri eta horretarako izandako arrazioen berri eman beharko du eta zehaztasun hori gai-zerrendan ere jasota gelditu behar du.

Lau. Zuzendariaren izendapena eta kargutik kentzea, arrazoa edozein izanik ere, Kooperatiben Erregistroan inskribatuko da.

51. artikulua. Zuzendariaren betebeharrak eta erantzukizunak.

Bat.- Zuzendariak bere karguari datzekion betebeharrak eta Artezkaritza Kontseiluak ezarritako jarduera-norabide orokorretatik ondorioztatzen direnak izango ditu. Gutxienez ere, hiruhilean behin Kooperatibaren egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko dio Kontseiluari.

Bi.- Elkartearen ekitaldia itxi ondorengo hiru hilabeteen barruan, Zuzendariak Kooperatibaren kudeaketari buruzko azalpen-txostena, Balantzea eta Emaiza Kontua aurkeztuko dizkio Artezkaritza Kontseiluari, gero bere garaian Batzar Nagusiak azter ditzan.

Hiru.- Zuzendariak atzerapenik gabe jakinarazi beharko dio Lehendakariari, bere garrantzia dela bide, Artezkaritza Kontseiluaren deialdia egitea eskatzen duen edo hark ezagutu beharrekotzat jotzen duen gai oro.

Lau.- Zuzendaritzak esleitzen zaizkion ahalmenak izango ditu eta, horien artean, gutxienez ere honako hauek:

1. Kooperatibaren trafiko arruntari dagozkion gaiak.
2. Kooperatibaren urteko Kudeaketa Planaren eta Plan Estrategikoaren prestakuntza zuzendu eta plan horiek Artezkaritza Kontseiluari proposatzea; eta, onartu ondoren, haiek egikaritzeko behar diren ekintzak burutzea.
3. Kooperatibako langile, inbertsio, finantza eta abarri buruzko politikak landu eta Artezkaritza Kontseiluari proposatzea; eta onartzen diren erabakiak eta neurriak egikaritzea.
4. Artezkaritza Kontseiluari Kooperatibaren zuzendaritzako izan litezkeenak eta elkartearen helburuak betetzeko beharrezkoak diren gainerako agintariak edo exekutiboak proposatzea.
5. Bazkideak edo soldatapekoak diren langileak kontrolatzea eta koordinatzea, ezarritako politiken arabera dagozkien kontratuak sinatuz.
6. Eusmeneko kuota kalkulatzeko, bazkideen derrigorrezko gastu komunak osatzen dituzten kontzeptuak eta zerbitzuak Artezkaritza Kontseiluari onartzeko proposatzea.
7. Bazkideei eskaintzen zaizkien zerbitzu desberdinak zuzentzea, bai komunak eta baita borondatezkoak ere.
8. Batzar Nagusiak eta Artezkaritza Kontseiluak emandako jarraibideak garatu eta egikaritzeko beharrezkoa den beste edozein eginkizun.

Bost.- Zuzendaritza Orokorrak Artezkaritza Kontseiluak onartutako erabakien egikaritzapenez eta hark egiteko agindutako zerbitzuen prestakuntza zuzenaz erantzun beharko du.

52. artikulua. Lehendakariaren eta Zuzendariaren bateraezintasunak.

EKEren Lehendakariak eta Zuzendariak bete ahal izango ez dituzten jarduerak eta karguak, honako hauek izango dira:

- Alderdi politiko, Sindikatu eta Enpresa Erakundeetako herriko, lurraldeko edo nazio-mailako zuzendaritza-karguetan egoterik ez dute izango eta ezta horietako sektore edo lurralderen bateko kargurik edo ardurarik izaterik ere.
- Ezein Herri-administrazioetan ere ez dute izendapen libre bidez hornitzen den posturik bete ahal izango, ez eta behin-behineko funtzionario edo zuzendaritza profesionaleko pertsona izan edota hauteskunde bidez hautatutako pertsonen osotasunean edo partzialki erabakitakoen baitan kargu-izendapenak edo kentzeak egiten diren postuetan beste edozein kargu, postu edo eginkizun bete ere.
- Era berean ez dute zuzendaritza-posturik edo eginkizunik bete ahal izango nagusiki Zuzenbide publikoko erakundeek finantzatutako jarduerak dituen eta bere kudeaketa haien kontrolpean duen ezein erakundetan ere (Institutu, Organismo Autonomo, Ekonomia Mistoko Elkarte, Fundazio eta gisakoetan).
- Herriko, lurraldeko, autonomiako, departamenduko, estatuko edo Europako hauteskundeetara aurkezterik ez dute izango. Horren ondorioz, ez dute kargurik edo herri-ordezkaritza posturik betetzterik izango Udaletan, Aldundietan, Batzar Nagusietan, Legebiltzarretan, Kontseilu Orokor edo Nagusietan, Eskualdeko Kontseiluetan, edota Gobernuetan, ez eta kargu edo postu horientzako lan egin ere (Batzar Nagusietako batzarkide-taldeen, parlamentarien, eta abarren, aholkulari izan).

IV. KAPITULUA

ERREGIMEN EKONOMIKOA

53. artikulua. Erantzukizuna.

Bat. Bazkideek ez dute banaka erantzungo elkarteak dituen zorrez, beraz, beren erantzukizuna, izenpetuak dituzten elkarteko partaidetzen kopurura mugatuta dago.

Bi. Despolastu edo ordaindu beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja ematen duen bazkideak ez du inolako erantzukizunik izango Kooperatibak geroztik egiten dituen zorrekiko.

54. artikulua. Elkartearen kapitala.

Bat. Kooperatiba-elkartearen kapitala aldagarria da eta bazkideen elkarteko partaidetza-kopuru mugagabe batek ordezkatuta egongo da.

Bi. Kooperatiba-elkartearen kapitala, Estatutu hauek onetsi diren datan, 30.000 eurokoa da eta elkartearen gutxieneko kapitala 30.000 eurotan ezartzen da, bakoitzak 10 euroko balio izendatua duten 3.000 partaidetzatan banatuta.

Hiru. Elkarteko kapitalari egindako ekarpenak, harpidetzen dituen bazkidearen aldeko partaidetza izendatuen bidez egiaztatuko dira.

Lau. Ekarpenak dirutan egingo dira, baina ondasun eta eskubideetan ere egin ahal izango dira eta, kasu horretan, Artezkaritza Kontseiluak beren balioa zehaztuko du alde zurretik horretarako izendatutako aditu independente batek txostena eginda.

Bost. Kooperatibak partaidetza berriak jaulki ahal izango ditu artikuluko honetako 2. atalean ezarritako balio izendatu berberekin bazkide berriek beren erosketak egin ahal izateko.

Sei. Ezein bazkidek ere, inoiz ez du elkartearen kapitalaren heren bat baino handiagoa den kapital-ekarpenik egiterik izango, baina muga horrek eraginik ez du izango kooperatibak hamar bazkide izan arte, 4/1993 Legeko 57-4. artikuluan aurreikusten den moduan.

55. artikulua. Derrigorrezko ekarpenak.

Bat. Bazkide erabiltzaile izaera hartzeko izenpetu beharko diren partaidetzen gutxieneko kopurua, 30 partaidetza edo 300 eurokoa izango da.

Partaidetza horien izenpetzea, gutxienez ere beren ehuneko hogeita bostean egin beharko da izenpetzeko unean eta gainerakoa urtebeteko gehieneko epean izenpetuko da.

Bi. Bazkide erabiltzaile izaera mantentzeko egin beharreko gutxieneko derrigorrezko ekarpena 30 partaidetza edo 300 eurokoa izango da.

Bazkide batek elkarteko kapitalari egindako ekarpena gutxieneko derrigorrezko ekarpena baino txikiagoa baldin bada, derrigorrezko ekarpenari dagokion kopurura iritsi arteko diferentziaren ekarpena eskatzen zaionetik urtebeteko epera bitartean egin beharko du.

56. artikulua. Elkarteko Kapitalaren aldaketa.

Bat. Ekitaldiko kontuez erabakiak hartuko dituen Batzar Nagusiaren erabakiz, EKEn elkarteko kapitalaren zenbatekoa eta aurreko ekitaldiarekiko izandako aldaketa zehaztuko dira ekitaldia ixtean.

Bi. Kapitala, Batzar Nagusiak quorum-arrazoiengatik eta elkartearen estatutuak aldatzeko eskatutako gehiengoaren arrazoiengatik onartutako erabakien indarrez, banagarriak diren gordekin edo erreserba guztiak biltzeagatik handitu ahal izango da.

Aurreko atalean aipatutako kapitala handitzearen kargura jaulkitako partaidetza berriak bazkideei dagozkienak izango dira lehen kapitalean zituzten partaidetzen arabera hainbanatuta.

Hiru. Era berean, jada jaulkitako partaidetzak biltzeagatik partaidetzen balio izendatuak ere handitu ahal izango dira. Handitze horrek, estatutuetan ezarritako xedapenen arabera bazkideen ekarpen osagarriak behar dituztenean, Batzar Nagusiaren erabakia estatutuak aldatzeko eskatzen diren quorum- eta gehiengo-baldintzetan hartu beharko da. Era berean, partaidetzen balio izendatua txikitu ere egin daiteke jaulkitako partaidetzen zatiketarengatik.

Lau. Partaidetzak beste bazkide batzuei laga edo eskualda ahal izango zaizkie eta baita hartarako betebeharrak betetzen dituztenei ere, baldin eta eskualdaketa egiten den egunetik zenbatutako 3 hilabeteko epean bazkide-izaera hartzeko konpromisoa hartzen baldin badute.

Bost. Erabat debekatuta dago EKEk berak bere kapital-partaidetzak erostea.

57. artikulua. Ekarpenen interesak.

Elkarteko kapitalari egindako ekarpenek ez dute inolako interesik sortuko.

58. artikulua. Ekarpinak eguneratzea.

Bat. Kooperatibaren balantzea Zuzenbide Komunean elkarreentzat ezarritako neurri eta baldintza berberetan eguneratuko da.

Bi. Ekitaldi batean edo gehiagotan balantzearen erregularizaziotik ateratzen den gainbalioa, lehen-lehenik izandako galerak konpentsatzeko erabiliko da eta, gainerakoa, baldin balego, Batzar Nagusiak erabakitako kopuruen arabera, kapitala handitzeko eta derrigorrezko edo borondatezko gordekin edo erreserbak handitzeko erabiliko da.

59. artikulua. Ekarpinak itzultzea.

Bat. Bazkide-izaera galdutako kasu guztietan, bazkide izandakoak edo bere kausadun egiaztagarriak ahalmena izango du izenpetutako kapitalaren zatia itzultzea eskatzeko, beti ere, kasua bada, elkarteko kapitalari egozgarriak zaizkion galeren zati proportzionala kitatuta. Horren balorazioa, baja gauzatzen den ekitaldiaren itxierako balantzean oinarrituta egingo da.

Bi. Estatutueta 12. eta 13. artikuluetan ezarritakoaren arabera baja justifikatua denean edo heriotza dela eta gertatzen denean, ekarpenei ez zaie inolako kitapenik egingo.

Gainerako kasuetan, Artezkaritza Kontseiluak ondorengo kitapenak onar ditzake:

- . %30 artekoa kooperatibatik kanporatze edo bidaltze kasuan eta baita bazkide izateko gutxieneko denboraldia ez betetzeagatik justifikatu gabeko borondatezko bajen kasuan ere, eta
- . %20 artekoa justifikatu gabeko borondatezko edo derrigorrezko bajen kasuetan, beti ere bazkidearen derrigorrezko ekarpenen likidazio-zenbatekoarekiko kalkulaturik, baina borondatezko ekarpenak eta kooperatibako etekinen itzulkin bidez kapitalizatuak ez dira itzulgarriak izango.

Hiru. Itzultzeko epea, baja-datatik zenbatuta ez da hiru urte baino handiagoa izango, edota bazkidearen heriotzaren kasuan, ez da urtebete baino handiagoa izango. Kooperatibaren finantza-egoeraren eta bajaren inguruabarren arabera, Artezkaritza Kontseiluak du itzultze horiek erabakitzeko eskumena.

Lau. Itzuli-zain egondako zenbatekoek diruaren legezko interesa jasoko dute baina ez dute eguneratze-eskubiderik izango.

60. artikulua. Sarrera-kuotak.

Bat. Batzar Nagusiak urtero ezarriko du bazkide berriek izenpetutako partaidetzen zenbatekoarekin batera ordaindu beharko duten sarrera-kuotaren zenbatekoa.

Bi. Sarrera-kuotak ez dira itzulgarriak izango eta ez dira elkarteko kapitalean txertatuko, Derrigorrezko Erreserba Fondoetarako izango dira.

61. artikulua. Beste finantziario batzuk.

Bat.- Bazkideek Kooperatibaren kudeaketarako emandako edozein ondasun motak edo egindako edozein zerbitzu-prestakuntzak eta kooperatiba-zerbitzuak lortzeko egindako ordainketek, ez dute Kooperatibaren Elkarte-kapitalik osatzen eta Kooperatibak finkatu eta kontratatutako baldintzen pean aurkitzen dira.

Bi.- Kooperatibaren Batzar Nagusiak urtero zehaztuko du bazkide den erakunde bakoitzak derrigorrezko gastu komunak ordaintzeko Kooperatibari ordaindu beharko dion kopurua. Kuota hori bazkidedutako erakunde bakoitzak dituen ikasleen kopuruaren proportzionala izango da.

Hiru.- Aldez aurretik behar diren erabakiak hartuta, Kooperatibak 4/1993 Legeko 57-5. eta 65. artikuluetan, 3., 4., 5. eta 6. ataletan aurreikusitako finantziario-moduetako edozein erabili ahal izango du.

62. artikulua. Elkartasun Kutxa.

Bat. Kooperatibak, eratzen denetik aurrera, Elkartasun Kutxa deituko dena sortu ahal izango du, edozein kasutan ere Kooperatibaren helburu eta xedeekin bat datozen eta edozein bazkidek bultzatuak izan daitezkeen proiektu bereziak sortzeko eta finantzatzeko.

Bi.- Elkartasun Kutxa hori kooperatibako bazkide guztiek derrigorrez egin beharko dituzten aldizkako ekarpenen bidez hornitua izango da eta baita eskura den soberakinaren %70ak ematen duenetik ere, 66. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kutxa horretako zenbatekoa bere berariazko nortasun juridikorik gabeko ondare gisa eratua izango da eta edozein kasutan ere ez da bazkideen artean banatu ahal izango.

Hiru.- Kooperatibaren Batzar Nagusiak, urtero finkatuko du bazkide mota bakoitzak ordaindu beharko duen derrigorrezko elkartasun-kuotaren balioa eta baita kuota hori finkatzeko erabiliko den kalkulu-irizpidea ere.

Lau. Kutxa horren Fondoaren zenbatekoa ezartzeko, bere administrazioa gauzatzeko eta banaketa zehazteko eskumena Artekari-tza Kontseiluak izango du eta urtero plan bat prestatu beharko du, gero Batzar Nagusiak onetsi dezan.

63. artikulua. Soberakin garbiak.

Bat. Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza-elkarte edo sozietateentzat ezarritako arauak eta irizpideak aplikatuko dira.

Bi. Kontu-sail kitagarritzat hartuko dira:

- Kooperatibaren kudeaketarako entregatutako zenbatekoak, merkatuko prezioena baino balorazio handiagorik gabe,
- elkarteko kapitalari egindako ekarpenek sortutako interesak, 4/1993ko Legeko 57. artikuluan erregulatuak eta elkarteko kapitalean sartu gabeko prestazioak eta finantziarioak,
- legez baimendutako amortizazioak,
- Kooperatibaren funtzionamendurako egin beharreko gastuak, eta
- ondorio beretarako indarrean dauden kontabilitate-arauek aitortutako beste edozein kitapen mota.

64. artikulua. Eskura diren soberakinen banaketa.

Bat. Soberakin garbiak, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera destinatutako kopuruak eta dagozkien zergak kitatu ondoren, eskura diren soberakinek eratu dituzte.

Bi. Batzar Nagusiak ondorengo arau hauen arabera banatuko ditu eskura diren soberakinak:

- a) Gutxienez ere %30 Derrigorrezko Erreserba Fondoak eta Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondoak osatzen duten multzorako izango da, hortik gutxienez ere %20 Derrigorrezko Erreserba Fondorako izanik eta gutxienez ere %10 Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondorako. Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondorako jarriko den gutxieneko ehuneko erdira jaitsi ahal izango da Derrigorrezko Erreserba Fondoak Elkarteko Kapitalaren %50eko zenbatekoa iristen duen arte.
- b) Gainerakoa, Elkartasun Kutxa izeneko fondorako izango da.

Hiru. Bazkide bakoitzaren Kooperatibako itzulkina bere kooperatiba-jardueraren proportziokoa izango da. Ezein kasutan ere ez da esleituko elkarteko kapitalean duen partaidetzan oinarrituta. Kooperatibako itzulkinen zenbatekoa elkarteko kapitalari gehituko zaio bazkide bakoitzaren hurrenez hurreneko derrigorrezko ekarpenaren zenbatekoa handituz eta zenbateko horiek ez dira kitapenei atxikita geldituko baja-kasuetarako.

65. artikulua. Derrigorrezko Fondoak.

Bat. Kooperatiba sendotzeko, garatzeko eta bermatzeko den Derrigorrezko Erreserba Fondoa ez da bazkideen artean banatu ahal izango.

Aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gainera, Fondo horretarako izango dira baja-kasuetan ekarpenei egiten zaizkien kitapenak eta sarrera-kuotak.

Bi. Kooperatibaren Hezkuntza eta Sustapen Fondoa, balantzearen pasiboan beste kontu-sail batzuetatik bereizita kontabilizatuko dena, Batzar Nagusiak ezarritako oinarritzko ildoan arabera, 4/1993 Legeko 68-3. artikuluan aurreikusitako helburuetakoren bat betetzen duten jardueretarako erabiliko da.

Aurreko artikuluan aurreikusitako zuzkidurez gainera, Fondo horretarako erabiliko dira derrigorrez, bazkideei ezarritako diziplina-zigor ekonomikoen zenbatekoak.

66. artikulua. Galerak egozte.

Bat. Batzar Nagusiak ondorengo arauen arabera egotziko ditu izandako galerak:

- a) Kasua bada, balantzearen erregularizazio-fondoaren aurka, 49-2. artikuluan adierazitakoaren arabera, ahal den kopurua egotziz.
- b) Borondatezko Erreserba Fondoei, izango balira, beren osotasunean.
- c) Derrigorrezko Erreserba Fondoei, gehienez ere, azken bost urteetan izandako soberakin positiboetatik derrigorrezko fondoetara destinatutako batez besteko ehuneko.
- d) a), b) eta c) atalen arabera konpentsatu gabeko zenbatekoa bazkideei egotziko zaie 56-3. artikuluan itzulkinentzako ezarritako irizpide bereberkin.

Bazkide bakoitzari egotzitako galerak honela ordainduko dira:

- zuzenean edota onetsi diren ekitaldiaren barruan kapitalari egindako ekarpenen murrizketa bidez,
- ondorengo bost urteetan legozkioken itzulkinen kargura eta, hondarrik geldituko balitz, hilabeteko epean zuzenean ordainduta.

Bi. Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, Batzar Nagusiak, ekitaldi bateko galera guztiak edo beren zati bat, bost urteko gehieneko epean etorkizuneko emaitza positiboan eta balantze-erregularizazioen kargura amortizatuzeko bazkideen banakako izendapenik gabeko kontu-sail berezi bati egozte erabaki dezake.

Bost urteak igarota, konpentsatu gabeko saldoa geldituko balitz, diferentzia, une horretan dauden bazkide guztien artean banatua izango da azken urtean izandako hurrenez hurreneko kooperatiba-jardueraren proportzioan, aurreko ataleko d) letran ezarritako irizpidearen arabera.

Denboraldi horretan baja izaten diren bazkideei, konpentsatu gabe gelditutako galeren fondotik dagokien zatia egotziko zaie.

V. KAPITULUA

ELKARTEAREN DOKUMENTUAK ETA KONTABILITATEKOAK

67. artikulua. Elkartearen dokumentuak

Bat. Kooperatibak ordenan eta eguneratuta edukiko ditu ondorengo liburuak:

- a) Bazkideen Erregistro Liburua.
- b) Elkarteko Kapitalari egindako ekarpenen Erregistro Liburua.
- c) Batzar Nagusiaren eta Artezkaritza Kontseiluaren Akta Liburuak.
- d) Inbentarioen eta Balantzeen Liburuak.
- e) Eguneroko Liburua.
- f) Legezko xedapenek eskatzen dituzten Liburuak.

Eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan gaituak edo legeztatuak izan beharko dute.

Bi. Idazpenak eta oharra informatika-baliabideen bitartez edota egokiak diren beste modu batzuek egingo dira. Ondoren, orrialdeak hurrenez hurren koadernatu eta legeztatu egingo dira Kooperatiben Erregistroan, ekitaldia amaitu ondorengo egunetik zenbatutako sei hilabeteko epean.

Horren kalterik gabe, informatika-baliabideen edo antzekoen bitartez egiten diren aurreko atalean aipatutako organoen aktak Kooperatiben Erregistroa ziurtatuta igorriko dira legeztatzeke, beren onspen-datatik zenbatutako bi hilabeteko epean.

68. artikulua. Kontabilitatea.

Bat. Kooperatibak bere jarduerari dagokion kontabilitate egokia eramango du, Merkataritzako Kodean xedatuta dagoenaren eta gainerako legezko xedapen aplikagarrien arabera, beti ere kooperatiben erregimen ekonomikoaren berezitasunak errespetatuz.

Bi. Ekitaldia ixteko egin beharreko Kooperatibaren urteko kontuek beren barne izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegokoan EKeri aplikagarri zaizkion Kontabilitate Arauetan derrigorrezkoak direnak.

69. artikulua. Urteko kontuak gordetzea.

Artezkaritza Kontseiluak, Batzar Nagusiak onetsitako datatik zenbatutako hilabeteko epean, urteko kontuak aurkeztuko ditu Kooperatiben Erregistroan gordetzeko eta, kasua bada, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreen txostena, Artezkaritza Kontseiluko kide guztiek sinatuta. Administratzailearen batek sinatzerik izango ez balu, ez sinatu izanaren arrazoia zehazki azalduko da.

70. artikulua. Kanpoko auditoria.

Urteko kontuak Kooperatibaz kanpoko pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatuak izan behar dute. Pertsona horiek Batzar Nagusiak izendatuak izango dira eta auditoria-txostena egingo dute. Pertsona horiek izendatzen ez badira edota izendatuek txostenik egiten ez badute, aplikagarri izango da Euskal Autonomia Erkidegoko 4/1993 Legeko 72.2 artikulua aurreikusitakoa.

71. artikulua. Letratu Aholkularia.

Bat. Artezkaritza Kontseiluak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Legeko 73. artikuluan xedatua bezela, letratu aholkulari bat izendatu behar du eta letratu horrek Kooperatiben Erregistroan inskribagarriak diren Batzar Nagusiaren edo Artezkaritza Kontseiluaren erabakiak Zuzenbideari doitzen zaizkiola dion txosten bat egin eta sinatu behar du.

Bi.- Letratu aholkulariak arlo zibilean erantzun beharko du Kooperatibarekiko, bere bazkideekiko eta hirugarrenekiko zabarkeria profesionala izandako kasuetan.

Eginkizun hori bateraezina izango da Kooperatibako edozein kargurekin.

Hiru.- Kooperatibaren eta Letratu Aholkulariaren arteko harremana, zerbitzu-errentamendu erako profesional liberalaren edo Kooperatibarekin lan-kontratua duen profesionalaren modukoa izan daiteke.

VI. KAPITULUA

KOOPERATIBA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

72. artikulua. Desegitea, kaudimengabezia eta antzeko prozedurak.

Desegite, likidazio, kaudimengabezia, ordainketa-etete, lehiaketa-prozedura edo antzeko dagokienetan, EKE, Kooperatiba-elkarteak egoitza duen estatu partaidearen legeriaren arabera eraturako kooperatibei aplikagarri zaizkien legezko xedapenen mende egongo da, Batzar Nagusiak erabakiak onartzeari dagozkion xedapenak barne.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA. Kooperatibaren harremanak.

Estatutu hauetako 39., 40., 41. eta 42. artikuluetan erregulatutakoaz gainera, Kooperatibak Lurralde Batzarrekin dituen harreman juridikoen oinarritzko erregulazioa eta Kooperatibak eta Lurralde Batzar horiek lurralde bakoitzeko bazkide erabiltzaileek (Ikastolek) beren buruak zuzkitzeko eratzen dituzten erakunde juridikoekin izango dituztenak eta beren garapenak nahiz aplikazio-arauak, Kooperatibaren Barne Araudiaren bitartez erregulatuko dira.

BIGARRENA. Langileen Partaidetza Arauak

Langileek EKE Kooperatibaren Elkarteko Organoetan izango duten partaidetza, berariaz onartuko den Langileentzako Partaidetza Arauak izeneko Akordioan jasoko da.

HIRUGARRENA. Langileen kontratazioa.

Kooperatibako zuzendaritzakoak edo elkartearen helburuak betetzeko beharrezkoak diren exekutiboak ez diren EKEko eta bere eskumendeko enpresa eta establezimenduetako langileak kontratatuzko prozedura, Kooperatibaren Barne Araudian erregulatuko da, EKEko langileek beren lana garatu behar duten estatuaren lan-arauetan kontrataziorako xedatutakoaren kalterik gabe.

AZKEN XEDAPENA

LEHENA. Kooperatibaren Arbitrajea.

Kooperatibaren eta bere bazkideen artean edota kooperatibako bazkideen artean kooperatiba-harremanen markoan sortzen diren gatazka-gaiak, baita likidazio-aldian ere, adiskidetze-bideak agortu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren arbitrajearen mende jarriko dira, baldin eta organo horrek gai horiek ebazteko eskumenak baditu eta gatazkan diren bi aldeek arbitraje horretatik ateratzen den laudoa onartzeko konpromisoa espresuki hartuko dute.

BIGARRENA. Eragorpen edo Birbidaltze Arauak.

Estatutu hauetan aurreikusi gabeko gai guztiak ebazteko, 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 1435/2003 zk.dun EKren araudian aurreikusitako Lege-xedapenek eta ondorengo aldaketek, 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 2003/72 Zuzentarauak eta ondorengo aldaketek eta Euskal Autonomia Erkidegoko 1993ko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak xedatuek balioko dute.